

Maiatzeko hauteskundeak

**Galdos: «Justizia soziala EAJren helburu nagusi izaten jarraitzen du»**

DONOSTIA

«Gaur inoiz baino gehiago, justizia soziala Euzko Alderdi Jeltzalearen helburu nagusi izaten jarraitzen du» adierazi zuen atzo Eli Galdos Gipuzkoako Diputazioarako EAJko hautagaiak.

Bidasoa eskualdean ibili zen atzo Galdos. Modernotasuna eta konpetitibitatea batetik, eta langabeziaren arazoa bestetik, aipatu zituen Gipuzkoak dituen bi erronka garrantzitsuztat. «Bi erronka hauei aurre egiteko gure ekonomia Europakorekin parekatu behar dugu, eta ekonomia eta aberastasunaren hazkundera bultzatu» esan zuen hautagai jeltzaleak.

Ekonomia bultzatzerakoan udalen eta Diputazioaren lana funtsezkoa dela esan zuen Eli Galdosek. «Instituzioek arlo honetan egin behar duten lanaz hitzegiterakoan, ez ditugu behar adina kontutan hartzen udal eta diputazioak» azaldu zuen.

Josu Ortuondo EAJko Bilboko hautagaiak Euskaldunak Untziolak orain urte batzuk arte zituen terrenetan Musika eta Kontzertu Jauregi bat egitea proposatu zuen.

Bilbo bezalako hiri bateko eskaera ekonomiko, sozial eta kulturalak erantzuteko «beharrezkoa» dela horrelako Jauregi bat esan zuen Ortuondok. Bilbo «hiri atlantikoaren sinboloa» litzateke Ortuondoren hitzetan eraiketa hau, eta iharduera kulturala bultzatuko luke hiri barmuan. «Kongresuak, simposiumak eta banka, zientzia, medikuntza, teknologia eta informatika ihardunaldiak antolatzeke leku bat behar dugu» izan ziren EAJko hautagaiaren hitzak.

**Aresen hamar mila aparkatoki berri sortu nahi ditu Bilbon**

BILBO

Rodolfo Ares, PSE-PSOeko Bilboko alkategaiak aparkatzeko 10.000 toki berri sortu nahi ditu Bizkaiko hiriburuan, trafikoaren arazoa zati batean konpontzeko asmoz.

Hamar mila horietatik, 4.000 Bilboko biztanleentzat izango lirateke eta beste 6.000 tokiak periferiako aparkalekuetan kokatuko lirateke: Inglesen Zelaian, Zabalburun, Gas Fabrian, Briñasen eta Jesusen Bihotzean. Aparkaleku hauek garraio publikoaren bidez egongo lirateke lotuta. Izan ere, Aresen ustez, garraio publikoaren hobekuntza da ibilgailu pribatuaren erabileraen alternatiba bakarra. Arlo horretan, gaur egun bikoizteko konpromezua hartu zuten Aresen. TAOri buruz, zabaldu beharra aipatu zuen Santutxu, Iratxe, Deustu eta Matiko auzoetara. Nicolas Redondo Terrorerok garraio publiko baten defentsa egin zuen, garraio zerbitzua Bizkaia osoan koordinatuko lukeen elkarte, hain zuzen ere.

# Aizpurua: «EAJren botoak, gero eta gehiago PPren proiektuarentzat dira»

## Ardanza «nebulosa batean» bizi dela ziurtatu zuen Elkorok

**Iziaz Aizpurua HBko ordezkariak «EAJren botoak gero eta gehiago, PPren proiektuaren botoak» direla salatu zuen atzo Hernanin emaniko mitinean. Jose Luis Elkorok, bere aldetik, Ardanza «nebulosa batean» bizi dela eritzi zion, eta HBren emaitzak «kontrako iztarritik joango» zitzaizkiola iragarri zuen.**

DONOSTIA

Aizpurua «errendizio» politika eramatea leporatu zien EAJ, EA eta EARI, eta beren ideia nazionalistak «moldegarriak eta estatuko beste edozein proiektu erregionalistarekin» pareka daitezkeela ziurtatu zuen.

«Estatutua eta Nafarroako Ameyorramendua —adierazi zuen Aizpurua— subiranotasun politiko tresna gisa saldu nahi izan zituzten. Prozesuan sortu ziren ilusioak ezereztuta geratu dira orain, Estatutua autonomia administratibo hutsean geratu da, deszentralizazio burokratiko hutsean».

Jose Luis Elkorok HBko Gipuzkoako diputatu nagusigaiak bere aldetik, Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakariak joan den igandean Anoetan egin zituen adierazpenei erantzun zien, izan ere bere iritziz «azken hilabeteotan HBren aurka garatzen ari diren montaiak toxikatzailen huts egitea» adierazi bait



Iziaz Aizpurua Ardanzen hitzei erantzun zien.

C. VILLAGRAN

dute.

HBko hautagaiak EAJri kritikatu zion «halako adierazpenekin herri proiektu sinesgarriak ez» izatea, eta alderdi honek Gobernuan eman dituen urteetan «Euskal Herriaren bererarikuntza ekonomiko, politiko eta sozialean aurrera egiteko gaitasunik eza» erakutsi duela gaineratu zuen.

Era berean, alderdi jeltzaleari leporatu zion etengabe «bidaia» ordaintzen egotea Espainiako Estatuari, «bere gobernuarentzako huskeriak harrapatzearen truke 'HBren berrero' bilakatuz».

**«HB-REKIN EZTABAIDA DEZATEN»** «Iritzi publikoaren aurrean nahi dut salatu UPN, PSOE eta EAJ bezalako alderdiek errefusatu

egin dutela Herri Batasunarekin gaitzaz zehatzaz ezbaidatzea», adierazi zuen Patxi Zabaletak, HBren zerrendaburuak, atzo arratsaldean Zangoztan egindako hauteskunde ekitaldian.

Leitzarrak adierazi zuenez, alderdi horiek «indarkeria aitzakizat erabiltzen dute, gizarte nafarrari interesatzen zaizkion gaiak ez ezbaidatzearen». Zabaletaren ustez, gainerako alderdiek ez dute intereseko gauzarik esateko eta «HBz gaizki mintzatu baino ez dute egiten».

Alderdi horiek, zerrendaburuak azaldu zuenez, Francoren garaia gogoratzen dizkiote Zabaletari, «orduan ere bakeaz mintzo bait ziren eskuak odolez zikinduta zituztenek».

# Gurrutxaga: «Eguzkiaren menpe ez dagoen turismoa garatu behar dugu»

DONOSTIA

Xabier Gurrutxaga Diputazioarako EEko hautagaiak Gipuzkoa garatzeko turismoak duen garrantzia azpimarratu zuen atzo Zarautzen. Gurrutxagak turismoa ondasuna dela eta indartu egin behar dela esan zuen. Zentzu horretan, eguraldiari begiratu gabe, turismo eskaintza garatu behar dela esan zuen. «Gaur egun turismo egitera datozenak epe laburretan egiten dute, baina bisitariak biderkatu egin dira eta eskaera horri erantzun behar diogu» esan zuen Gurrutxagak.

Eskaintza hau asteburuei eta zubiei zuzendu behar zaie, Euskadi eta inguruko herrei begira, Gurrutxagaren usteetan. Asteko lan egunak ere aintzat hartu zituen EEko hautagaiak. Egun hauetan negozio gizonak izaten dira eta hoiei zuzenduta eskaintza kulturala, kirolezkoa eta ingurugirokoa indartzearen alde agertu zen. Europar ematen ari diren aldaketak ere kontuan hartu zituen



Xabier Gurrutxaga.

Gurrutxagak eta erronka horri aurre egin behar zaiola esan zuen.

Euskadiko Ezkerrak turismo arloko proposamenak zabaltzeko aprobetxatu zuen atzoko eguna. Gurrutxagak Gipuzkoako turismoa bultzatzeko egitasmo berezi bat behar duela esan zuen, lurraldeak dituen

aukera guztiak probetxatzeko. Gurrutxaga Hondarribitik Mutrikurainoko zerbitzu azpiegiturak indartzearen alde agertu zen, eta barrukaldea turismo kulturala bultzatzeko erabili behar dela ziurtatu zuen. «Datozen urteetan Loiola eta Zestoa bultzatu behar ditugu, mendiko turismoa ahaztu gabe, batez ere Arantzazu, Urbiako mendatea eta Aralar».

**UR KONDARRAK GARBITU** Javier Olaberri Donostiako alkategaiak, ur kondarrak garbitzeko Añarbeko herri guztien alkatasuna eskatu zuen. Olaberri, Gurrutxaga eta Añarbe mankomunitatean EEk aurkeztu dituen alkategaiak Añarbeko depuragailuan egon ziren atzo, eta han egin zituen adierazpen horiek. Urarekin lotutako arazo hau konpontzeko Olaberri herri bakoitzak lurzorua jarri behar duela esan zuen, eta enpresei, sortzen duten zaborra garbitzeko exigitu zien.

## GAURKO EKITALDIAK

### ARABA

- **PSE-PSOE:** Gasteiz Mendizorroza), 18.00. Buesa, Rojo, eta Matilde Fernandez.
- **UA:** Añanako kuadrilaren bisita. Diputazioarako hautagaiak.
- **EAJ:** Kuartango, Izarra, Gopegi eta Murgia ibilaldian. Ansola, Allende...
- **EE:** Gasteiz (Errekalde auzoa), 12.00. Ibilaldia.
- **CDS:** Foru enparantzan (13.00) eta Sansomendi auzoan (19.00).
- **HB:** Gasteiz. Pilar auzoan Maritxu Goikoetxea. Judizmendi auzoan Ruiz de Pinedo. Laudion mitina: Pablo Gorostiaga.

### BIZKAIA

- **EE:** Bilbo. Robertoki. Erregioetako etxeekin elkarriketa.
- **HB:** Ondarra (Alameda). 20.00. Mitina. T. Erkizia. J.R. Etxebarria, L. Arkotxa. Sestao. 19.00. Mitina.
- **EAJ:** Autobusa: Trapaga, Muskiz, Urtuella.
- **PSE-PSOE:** Barakaldo. 14.00. Bazkaria. Bilbo (Errekalde). Mitina. Ares, Redondo, Sartudo, Fernandez.
- **PP:** Karabana. Goizean Durango-Ermua, arratsaldean Enkarterrietan. Propaganda banaketa Bilbon eguerdian eta arratsaldean.

### GIPUZKOA

- **HB:** Donostia. 10.30. Lezoko alkate eta zinegotziek deklaratu behar dute Proibintzi Auzitegia: Espainako Ejerzitoari laguntza uko egiten zion udal erabakia.
- **EE:** Donostia. 11.30. Errotaburu bisitatuko dute: X. Gurrutxaga, J. Olaberri, J. Zubimendi.
- **EAJ:** Autobusa: Andoain, Anoeta-Irura, Billabona, Usurbil, Hernani, Lasarte, Zizurkil. Lasarte. 20.00. Mitina: Juan Alkorta, Joseba Egibar, Eli Galdos.
- **EA:** Donostia. 11.00. Xabier Albistur etxebizitzarako lurra eta enplegu sortzeaz mintzatuko da. Arratsaldean Amara-Berri bisitatuko du.

### NAFARROA

- **TU:** Iruñea. Felix Taberna, Javier Erice, Jon Erro. 20.00.
- **HB:** Burlata (Plaza). Telletxea, Zabaleta. 20.00. Fustiñana. 20.30
- **BATZARRE:** Zentroniko (Milagros Rubio, 21.30). Bera (Patxi Urrutia, 20.00). Korella (21.30). Fitero (21.30).
- **PSN-PSOE:** Castejon (Kultur etxea). Urralburu. Felones. 20.00.
- **EAJ:** Zaraitzu ibarran hauteskunde ibilaldia. Nabaskoze. Urbiola. 19.00)
- **EE:** Ibilaldia (Agoitz, Irunberri, Zangotza, Izaba).
- **UPN:** Cascante, Monteagudo, Murchane.
- **EA:** Goizueta. 20.30. Cabases, Petrizan eta L.M. Mujika. Marcilla. 21.30. Ziarriz, Oartzabal.